

berria



Gizartea

Politika

Ekonomia

Mundua

Iritzia

Kultura

Kirola

Bizigiro

Berria TB

Kultura

MUSIKA. RUNA

'Rito estacional'

Diskoetxea: BCore.

Los Tiki Phantoms surf bandan aritutako bi musikariren egitasmo berria da Runa, eta *Rito estacional* taldearen bigarren lana da. Bada, hirukotearen proposamena oso bestelakoa da Los Tiki Phantomsen jario instrumentalarekin alderatuta. Hamabi kantu hauetan, gaztelaniaz abestutako punk iluna gailentzen da, eta atmosfera lanbrotsu hori hitzetan ere islatzen da; gatazka da gehien agertzen den kontzeptua. Hala, katalanen soinua Biznaga, Futuro Terror edo La URSS taldeekin lerroka daiteke, Runaren proposamena pluralagoa bada ere. Kantuak melodiekin josita datoz, ereserki itxura ere hartzen dute tarteka, eta batzuek Fugazi eta Gabinete Caligariaren arteko uztarketa direla esan dute. Diskoa hainbat aldiz entzun ostean, ez nau erabat konbentzitu, une boteretsuak gordetzen dituen arren.